EMAKUME INGOSKIA

GOGAKETAK

DONOSTIARRA BIDEAN

Egin-bear eta ardurak geron gain artzen ditugunean, al guzian oiek betetzeko asmotan izan bear gera; geure gaitasunik ezak eziñean lotzen ba-gaitu ere, beintzat bearkun oiek bete nairik ezaren errua ez deigula geron gain eraman.

Nai on onek beartuta, aspaldi ontan sari-xamar Donostia'ra juan bearrean oi gera, Gipuzkoa Emakumak gure gain utzi duan arazoaren arduraz. Etxaldeko suaren epela utzita aize otzak artzera juan bearra gendun azkenengo ontan, baña, bearkunak... betetzekotan; bestela ez artu. Ta ara nun geran geldokian bultziaren zai.

Nik baño bide luziago Garate anderetxo eibartarrak, Ondotxo gazteago ere bai da-ta, ez det uste neguaren egualdi txarrai bildur aundirik dienik. Beti bezela, bultzia geldokian sartzean, an datorrela neri adierazteko, leiotik eskuaz deitzen nau. Beregana nua. Ez dator bakarrik. Don Poli ta beste gizonezko gazte bat dira berekin. Agurtu gera, ta nere tokian exeri baño len igarri det, gazte, neretzat ezezagun au ere eibartar abertzaleren bat dalá. Berealako baten bultziak gure ondartza ederrean ziar bide-artu du...

—o—

Don Poli lagun daramanak ez du alperrikako izketaldirik. Biotzaren ugaritasunaz mingañak itz badagi, jaun onek dagian lan aundi goralgarria, beronek esan bearrik gabe, lan onek eman dion jakintzan ezagun da; baita bere zaletasun ederrak, artzen ditun itz-bideetan igartzen dira.

Bereala degu egiten degun lanaren galdezka. Nere erantzuna bide, bere ta Garate anderetxuaren artean eztabaida bat sortu da. Eztabaida bizia; beste biok ere sartu geran eztabaida. Iru baten aurka; baña nere laguna, emakume argia da-ta, bai daki ontan nundik bere burua atera kaskarreko aundi gabe.

Ontan, darabilgun autuaz geu bakarrik utzita, eskuan daraman brebiariua zabalduta Don Poli bere otoizketan asi da. Ez da lenbizikoa beregan au nabaitu detala. Len ere bein baño geiagotan ikusi izan det lagun artean dagoiarik, abekin daukan izketaldia bertan-bera utzita bere otoitzaldia egiten. Bultziko zaratan, lagun artean, Kartujo bat bere etxetxuan bezin bakar; txintxi-deiak beartuta korura juaten dan lekaidea bezin zintzo; bere elburua Jaungoikoagan daukan guziaren leialtasun osoz. Eta oldozkor utzi nau, naiz eta besteakin izketan jarraitu...

—o—

Arrona... Zumaia... Zarauz atzean utzita aurrera guaz, neretzat beñere baño laixterrago, aserrerik gabeko gure eztabaida, atsegiña izan zait bere gaia ta zioagatik; eta bertatik zerbait onura atera degulako bakoitzak, au gutxitan oi bada ere. Ea beste autu bat datorkigu gure izketa gai, baña gure apaiz jaunak bere otoi aldia amaitu du, ta liburu itxi ta lotu. Berriro lenaz zerbait esan bearrean gera, alkarren ondoan giñan arren ez ausa bere adimena gurekin egon...

Eta nere baitan zerbaitek erazo nau: "¿Beste orrenbeste egiten bai dakin?" "¿Bai dakin egun bitartean, eure gogoa beko arazoetatik orrela askatu, ta Goikoaz lotzen?..."

Esango degu, gure lanak, gure ardurak, Jaungoikoagatik ditugula. Ala da, ta ala bear ere. Baña onezaz gañera, lan eta arazo abetatik ere aldian-aldian gure gogoak azkatu ta osoago Bera'kin egoten jakitea, lan oiek asmo zuzenago erabiltzea da; ez ditugu bear ba geure buruaz gain, edo berengana geiegi katigatuko gaituen bestean artzerik.

Eta, ¿nun da bere buruan ezta, Jaungoikoagan ustea artuta dabillenaren almen ederra, berdintzekorik?... Alguzidunaz dabillenak, guzia al leikela era batez esan geikena. Norbere ezereztasunean ustea jarrita dabillenak ostera, sarritan gauzak nai ez lituken eraz... Jaungoikoagatik dagigunak, Bera'gana garamazki; Bera'gana garamazkinak ez gaitu emen lotzen; Goi'rontz begiak, biotza, gogoa, lotu al izatea, erreztu egiten digu...

—o—

Bultzia ia Donostia'n da; laurok elkar-izketan, laurok alai. Garate anderetxuak bere lagun eibartar Emakumaentzat berri pozkarri bat gaur; gizonezko gazte abertzaleak, beste orrenbeste ango langille beartsuentzat; Don Poli'k, Donostia daraman egitekoaz oldozten du orain eta liburua gorde du; nik... zertara nuanik gabe, gogoan itsatsi zaidan "zerbait"etzaz oldozten det. ¡Izan ere gure Jaungoiko maiteak, usterik gutxien degun tokian, usterik gutxien degun orduan Bere nor dan eta nun ta nola arkituko degun adierazten digu!

TENE

GURE UMETXUAK

Ara emen urte biko mutikotxoa. "¿Quiere ustez que le jetxe a güenaventura?".

Galdezka datozen atso beltzak Gipuzkoa'tik aurrean ateratzeko gertu.

Gipuzko Emakume Abertzale Batza

Azkenengo bere batzarrean batzorde onek artu duan erabakietan bat, noizik beinka anderekiko gai bereziz egindako aldizkari bat argitaltzea izan da; amabosteroko gure ingoski onezaz gañera.

Aldizkari au euskeraz izango da; ta beste izkuntzatan emakume aldizkariak oi dituzten bezela, gure lan-gaien irakatsiak izango ditu, argazki ta marrezki ederretan.

Guzia baña geure artean egiña nai genduke; Euzkadi'ko emakumak orrenbesteren lain bai geralakoz usteetan gera-ta.

Elkarren ikasbide ta argibide izango aldizkari eder bat. Gure jostunik onenak, bordatzallerik trebeenak ta gai guzitako ertillari azkarrenak osatutakoa. Onezaz gañera zer irakurri atsegiñak izango ditu elertiari ere bere zalla eman nai diogu-ta. Baita Emakume abertzalientzat jakingarri diran beste zenbait gauz eder ere.

Uste degu izpar atsegiña izango dala gaur gure au Gipuzkoa'ko Emakuma'entzat, eta erabat edo beste beren laguntasun azkarra izango degun itxaropenez gera.

Jaungoikoa lagun gure asmo onezaz zertzelada geiago emanaz juango gera, baña baita pozik artuko ditugu errietako emakumaen iritziak gai onezaz: al bestean guzientzat atsegin eta onurakor litzaken gauza on bat nai genduke atera-ta.

Ea ba, nundik eta nor datorkigun bere asmoezaz pozkarri litzaiguke ba.

Gabon ta zorion guzioi.

Batzorde

Pirri... pi... pil..

Auzo-andere politxo batek
bere aurrian,
txori txiki bat berritxu dauka
kayol batian.
pirri... pipipi abes ta abes,
egun guzian
gelditzen ez da goiz ezkerotik
arrats-artian.

—o—

Andere polit josi ta josi
leyo-ertzian
aspertu gabe, txoriñoaren
aldamenian;
txoriya pozik yaurki ta yaurki
zotza-gañian
pirri ta pirri izerdi-patzez
ler bearrian.

—o—

Andereari nik esan diyot
arrunt-urduri,
utz dezayola itzul-egiten
txoriñoari;
arren ordeko jarri nai banau
eresitali
aiko natzayo gau eta egun
pirripilari...

Txepetx

Deabrua ta bere adizkidea

(gertatua)

1831' ko Agorrillaren egun baten, Paris' ko Matalen' go elizaren ondoan, etxe bateko atezaiñagana guztiz apain eta egoki jantzitako jaun argal txiki bat aurkeztu zan.

—¿Bai al da etxe ontan bizi-tokirik eman-gai?—galdetu zion.

—Zu bezelako jaun batentzat egoki-egoki bat bai da lenengo bizitzan.—erantzun zion atezaiñak—Bertan gela eder bat dute, oin-oial eder, saburu, ta abar...

—Orrelakorik ez.—itza etenaz esan zion baita jaunak.

—Orduan, irugarrena ikusi zeinkezu. Gela lasaiak, busti-gela, eratsua da.

—Ezta. Ori ez det nai. Goiko sapaia nai nuke.

—¿Sapaia? Badago utsik bat; baña ezin diteke bertan iñor bizi. Nunnaitik aizea zartzen zaio; alborengo bat arrapatzeko alagalakoa...

—Ez dit ardura. ¿Zer sari du?

—Eun franko urtean; baña jauna, zu bezelako batentzat, ez zait iduritzen...

—Ezdet eztabaidetan galtzeko astirik. Sapai ori berealatik nai det neretzat; gertu eduki. Tori...

Ta legor-legor eskupeko bat emanaz, atadian zai zeukan zalburdi eder baten baten juan zan.

Atezaiña buruari eragiñak sapaira igo zan... Kendu zitun amalaunak, garbitu zitun leio bakarraren leiarrak, itxuzkiaz igortzita, al bestean iñor sartzeko eran utzi zuan.

Ordubete barru, lengo jaun ezezaguna, kutxa luze astun bat bizkarrean zekarren mutil bat lagun zuala biurtu zan.

Utzi zuan mutillak kutxa beltz luzea sapaian eta jetxi zan. Atezain-tokilik igarotzean, kutxa artan zer ekari zuan galdetu zion atezaiñak.

—Ez dakit; baña zerbait gauza astun askoa da beintzat ekarri detan ori.

—¡Ildakoren bat ote da ba! —ikaraz esan zuan atezain-andreak.

—Ez zera urruti ibilliko —erantzun zion senarrak.

Une artan jaun ezezagun zurgarria atean azaldu zaĥ.

—Emen, —legor esan zien— nigana datorrenik notin bat bakarra artuko det besterik ez. Itxura oneko jaun altu bat da berau, 40 urte inguru dituna ta zerbait ere itzal eta ixilla.

—¿Bere izena?

—Ez det esan nai. Ez du iñork jakin bear nigana lanera datorrenik. Iñortxok ere ez baña.

—Orduan, datorrenean bidaldu ez daigun ¿nola jakingo degu nor dan?

—Esakun jakin bat izango du.

—¿Zer esango du ba?

—"Deabrua gana juan nai det". Auxe da esango duana.

Atezaiña ta bere emaztea ikaraz atzera egin zuten, baña jaunak ezer igerri gabe goruntz bere sepaira igo zuan patxaraz.

Egun artan bertan etorri zan esandako ikerlaria. Ez zan itxura atseginduna. Arpeikera izu zurbilla, bepuru astun eta begi bizi urduriduna. Bere soin luze ura goitik beera guztiz estaltzen zion kapa, gain beltz, barrutik gorridun baten batuta, itxura ikaragarria zuan.

—Deabrua gana juan nai det-abotz lodi-lodiaz esan zuan atezañai munetaraño ikara sartuaz.

—Arren gora igo zaite-bildurti erantzun zion senarrak-zuk nai dezun jauna goian dago.

Ordutik egunoro igo zan jaun bildurgarri au beti ordu berean; eta biak egunik geiena elkarrekin ematen zuten, egundoko abesti inpernuko antzekoak abestuaz; entzuliai ikaraz buruko tximak zutintzeko laingo abesti bildurgarriak. Arratzaldetik, bostak inguruan, elkarrekin ateratzen ziran; urrengo eguian berriro beren abesketa zoritxarrekoai ekiteko.

Atezain senar-emazteok, ain bizi-lagun nolabaitekoaz keska artzen jarri ziran. Oien artean zer eskutu zegon astarrena atera zualata, goiz baten senarra sapairaño igo ta ate zirrikitotik ikuskatzen jarri zan. Itz ikaragarriak entzun zitun.

—¡Aurrera, ausardiz, Satanas! —oju egiten zuan batek.

—Esaten erraz da-erantzuten zuan besteak-baña ¿orren errax deabru biurtu litekela bat uste al dezu?

—Zalla da, ezpairik ez det; baña ez du ajolik. Zuk gaitasun bereziak dituzu.

—Nik uste det ba, era ontan ez naizela iñoiz ere izango zuk nai dezun deabrua .

—Ala ere izan egin bear zera. Neri opalben egiteko izango zera Satanas zu.

—¡Jaungoikoa lagun dakigula! —larri jetxi zan. Ea ez zuan geiago ezeren ezpairik Laizterka juan zan lenengo zegon polizikoa gana, ta edestu zuon guzi-guzia. Nola etorri zitzaion lenbizi jaun bietako bat; kutxa luze beltza; abesti inpernukoak eta izketaldi deabrukozkoa.

Ain zuzen sapaiko gizon biok beren izketaldi deabruzkoaz ari zirala eldu ziran bertera.

—¡Erregeren izenean iriki!

Geiagoko gabe barrukoak iriki zuten. Komisarioa bere menpeko batzuk lagun zitula sartu zan barruan, ondoren baita atezaiña ta bere emaztea, etxepeko bizi-lagun guziak beroiekin zituztela.

—¿Nola dezu izena? Komisarioak galde-egin zuan.

—Giacomo Meyerbeer-irriparrez eratzun zion sapaia artzera lenbizi etorritako jaun apaiñak.

—Eta zuk? —galdetu zion baita besteari.

—Nikol Porspera Levasseur, Opera Aundiko baju nagusia.

Komisarioa nun zegun etzekiena bezela gelditu zan. Kendu zuan txapela itzal aundiz, eta esan zien:

—Asketsi jaun goragarri oiek. Zorgintzuan zabiltzatentzat zalatuak izan zerate. Ez nion asko-asko zinistu nai atezain oni, ta ez nitzaitzuten gogaitzera etorri bear izan; baña ez litzake lenbizikoa onelako bizitoki txiroak jaun aundizkien txarkeri toki izatea. Ala ere zuen izen omengarriak besterik dasate, ta ikusten det- oker-uste bat izan dala.

—Baña ¿zergatik orduan orrenbeste zarata, beti ere deabruari oju egiñaz? —apal-apal galdetu zuan atezaiñak—. ¿Zer dago kutxa orretan?

Meyerbeer'ek iriki zuan kutxa: bertan ereskin zeukan "Boberto il Diavolo".

—Sapai ontan eskutatu nai-esan zuan irakasle aundiak-nere eresantzerti berri ontan egin bear duan Beltramo'ren zatia Levasseur jaunari irakasteko. Ni bizi naizen Ostatu Aundian ezin nindekean ezertariko ikasketan aritu. Bakarrik eta gentzatsu egon bearra gendun, gure lana galeraztera iñor etorriko ez dan toki baten; eta augatik gabiltz ixillpean. Levasseur berau izan zan "Deabrua gana juan nai det" esakun au ezaugarri asmatu zuana.

Andik egun batzuetara, 1831 Azillareb 15'an "Roberto il Diavolo" ren lenengo antzezkisunean, Komisarioa ta etxe zaiña zeuden ikuslien artean. Atezaiñak ero baten gisa txalotzen zuan, baña irugarren atalean, deabruzko deiketan Levasseur'ek bere zatia ain abotz gurenez abestu zuanean, soin guzia otzikarak artuta aopean zesan: "Ez dakit... ez dakit..., oraindik ere ez nuke esango berau deabrua ez danik".

M.'tar T.
(euskeraltzalle)

Etxeko artu - emanak

Elgoibar, "Mirentxu". — Milla ta milla esker emakumea. Eskerrikasko milla bider. Poz aundia eman diguzu. Mugituko al dira beste geiago ere zu bezela. Baña aizu: ¿ez al degu gure ingoski ontan zuk izenpetutako zertxobait ikusi bear? Zai gauzkatzu.

—o—

"Galtzaundi". — ¿Galde ori guri? Ara: gure ingoski oni laguntzeko zertxobait ematen duan "perfumeri"renbat baldin ba'litz or nunbaiten, ekingo giñoke guk ere oni ondo letorzkion onuak ematen; alegia, onlako ora ona dala arpegian emateko; bestelako ur, obeagorik ez bezelakoa illea gorritzeko ta abar; baña ez guaz duan iñori erreklamurik egitera, ta azketsi zure galde orrentzat erantzunik ez badegu. Baña gugaz oroitzea eskartzen dizugu, ta eskerron onen agerbide beste onu bat bai degu zuretzat: Benetan galtzaundidun ba-zera, eztutu zaizkitzu ondo gerrian, erori ez dagizkitzun. Arpegi leun eta zonak, emakumeenak... emakumeenak.... ¿entzun?

—o—

Bergara, "Ama bat". — Zuk galdetzen dezun andretxo ori guztiz ondo arkitzen da. Ez du osatebakuntzarik bear izan; eta laixter da emen argitara eman duan aurtxo zoragarriaz bere errian poz pozik. Donosti E. A. B.' ren "Euskel-Laguntza" koak baita pozik, egin al izan diote laguntasun egitez. Beste norbait aben bear dala jakiten ba - dezu ere idatzi edo idazteko esan; andera ongille abek donostiarrai bezela bertora datozen errietako beste gaxo abertzaliai laguntzeko gogo biziz daude-ta.

—o—

Eibar, Lendakari. — Eskerrikasko bidaldu dezun emaitzagatik. Eta orrara bidalduta ditugun orriak laizter laizter beteta itzultzen badizkiguzu, eskertuko zaitugu. Jakiñean gera aldi ontan lan askotxo dezutela baña...

—o—

Lolitatxo, Irun. — ¡Oi!... ¿Lolitatxo beaz? Ta zergatik ez Nekanetxo? ¡Politagoa da ba, emakumetxo! Gu, gure erdel-izenak baztartuta gabiltz aspaldi ontan. Ta geroago ta ederrago arkitzen ditugula. Ea ba zuk ere urrengorako, ¿e? Eta... euskeraz idatzi baita. "no tengo la dicha de saber escribir bien en euskera.." ta oiek, alde bat utzi. Erderaz idazten duten guziak ondo idatziko baluteke bezela. ¿Ez al dakizkizu emakumeen "ortografi" dala-ta, erderazko kanta, arako, "un amor con "h" allí me plantó" ta? Ba, euskeraz baño lenagotik dira erderaz gaizki idazten dutenak; naiz eta gure elea zarrago izan. Urrengorako bai dakizu; ekin bildur gabe.

Gure idazkariak bere gain artu du eskatzen dezun egitea. Berriz ere nai guzia agindu. Menpeko gaituzu.

—o—

Motriku, Deba, Andoain. — Zuek eskatu bezela, "Pin pon" txapelketarako artu ditugu bidaldu dituzuten izenak. Orain arren asteoro bidaldu baita igande bakoitzeko irabazlearen izena ere. Eskerrikasko.

—o—

Miren Itziar, X. X. — Zuen erriko Lendakari andera ez dala ezertara mugitzen? Tamala da. Bai dira bai toki bat baño geiagotan orren antzekoak.

Baña aizu: ¿zergatik zuek bare-bare, onean-onean, zerbait egin arazten ez diozute? Eskatu zaiozute bata egitea nai zendutekela, edo bestea egitea; ta ez dizute ukatuko. Tira, emakumea; zu ta zure lagunak ontara jarri bear zíñeteke: egiten ez duanari egin-arazterа. ¡Baietz!

Eta... ¡Jainkoa arren! ez dezazutela bildurrik izan. Guk ez zaituztegu azalduko, ez orixe. ¿Emakumeak emakumeaz konfiantzarik ez? ¡Ene bada. Guk ba, ixilpekoak gordetze ontan, ez degu emakume antzik. Guztizkoak gaituzu. Ez keskarik izan. Idatzi berriz ere.

—o—

Izlariai. — Errietatik, erri txiki txiroetatik Emakume aretoetan, abentzat egoki diran gaietzaz itzaldiak emango dituzten izlari eske ditugu. Guk aben naia bete nairik, Aberri aldez bere irakatsiak eman naiko lituzkenetzaz oldozten degu... ¡Zenbat on egin leiken onetarako dan abertzale bakoitzak! Bakoitzak bere gaitasunak ditu; ta zenbaitek, jakintza ta izketarako egokitasuna. Onelakoak ez ote zaizkigu etorriko "¿Nora juatea nai dezute?" galdezka?

—o—

Neskame eske. — Donosti E. A. B.'ra etxekoandre asko juaten dira, "Emakume" diran neskatxak nai lituztekela beren neskametzat eta. Onelakoai beren eskea poz-pozik artu gabe ezin gindezke gelditu. Bai dakizute ba, neskatxak: neskame tokia nai dezutenean zuzendu zaitezte Donosti E. A. B.' ra Santa Catalina, 5' era. Edo berdin Gipuzkoa. E. A. B.' ra.

—o—

Erri guzitakoai. — Bear ba-da arrituko ziñaten garai ontan oi diran lan berezietara, alegia "Gabon" aurretik Emakuma abertzaleak egin oi ditugun lan berezi abetara ernaitzera iñori deirik ez egiteaz gure ingoski ontatik.

Oraindaño baña, gure bearrik gabe erri bakoitzean urteoro lan ederrik asko eginda, bai ume-janzki otarratxoak egiten nola txiroentxat berogarirak josten ere. Berdin "Gabon" gabean Josu Aurraren jayotzaz beren etxe txitoetanaere zerbait poz-bide eramateko lanak egiten ere. Aurten baita izparringietan ikusten degunez erri asko ta askotan besteetan bezela zintzo ari dira ta ez da guk onezaz ezer esan bearrik. Ala ta guzi, leiken gauza da, erri bat edo besten oraindik ere ardura gabe xamer eta atzeratxo beren lan abetan ibiltzea, ta ¡arren! dei dagiegu ez ditezela gure txiroezaz aiztu; bere erriko gure txiroezaz eta alegindu ditezela beste erri geienetan bezela, esekak egin, zerbait bildu, eta "Gabon" apariak etxeetara eramaten. Kistar gogoentzat pozarri eder dan gau ontan bear izan itzalean gure txiroen sendirik arkitu ez dedintzat.

¡Ea ba, Emakumak!

Batzordeko

GURE MATXINADA

Aldian aldiko gauza

Ez gera makal bildurtiak izan bear. Zebaterañoko adorearen bear gera ba, orain, urtearen aldi ontan, euskereari egin geinkion laguntasuna egitera ausartzeko? Alegia, aldizkingi erdeldunak utzi ta euskeldunetara arpidetzeko? Oraintxe ba, au egiteko garaia .

Al duanak, lengoak utzi gabe berririk artu, ondo da; baña onenbeste ezin duanak ¿zergatik ez erderazkoak ordez gureak artu ez? Bidezko ta bearreko zaigun gauza da au. Ta ez da onela ez egiteko ziorik.

Euskeraz bai degu ingi ederrik asko gaur, Zoritxarrez, il zorian, gure laguntasunik ez dutelako. Batzuk beintzat Ta urliak edo dalakoak beartuta, erderazkoari ematen diogun laguntasun ori geure aldera jartzera erabakitzeko adorerik ez?

On ez diran aldizkingi ta asteoroko ta abar auxe gatik utzi bear ditugu, on ez diralako. Baña on diranak, eta euskeldun ez, abek gure eleari kalte da giotelako utziko bearrean gera. Bai ditugu Jaungoikoari eskerak gaur, euskeraz, erderazko asko ta askorik zorrik ez dioten aldizkingi Jaungoikozale ederrik.

"Zeruko Argia" "Argia" "Ekin" "Jesus' en Biotzaren Deia" "Irugarren Prantzizkotarra" ta abar. Zein baño zien errelijio aldezle ta irakasle obeak. Aintzat artu bear ditugunak.

Emakumearentzat lan egokirik aberri aldez ba-da, auxe bat beintzat. Gure aldizkari euskerazkoen laguntasunardura izatea; ta urtearen garai ontan, ardura au arretaz artzen ba-degu ¡zer nolako jeikia emango giñoken gure izkuntz maiteari!

Ez degu onekin eman-bear berririk asmatu, ez degu onelakorik nai ere. Baña gaizki ematen deguna, ondo eman; eta ondo ematen deguna, obeto emateko erea da erakusten degun au.

Ez ba gure eske au alde bat utzi jaramon egin gabe, ene Emakume zintzoa ta zeuk artu ta besteai artu-arazi urteare azieran euskerazko aldizkariren bat.

¿Ortarako erderazkoren bat utzi bearko dezula? ¿Ta zer?

Gure sariketa

Gertu. Emakumeak, guk ere gure sariketa berezia bai degu-ta. Baita izango ditugunak Jaungoikoa lagun.

Ara baña oraingoa, Gipuzkoa Emakume Abertzale Batza'n dauden errietako E. A. B.' entzat eratua:

UME-JANTZIKI BATZALDIA

Arauak:

1. Urtebetetik laura bitarteko umetxoarentzat egiña izan bear du jantziki edo "arreotxo" onek. Mutiltxoarentzakoa naiz neskatxoarentzat egiña.

2. Adin ontako umeak jantzi oi dituzten gauz guziaz osatu izan bearko du.

3. Ez du izan bear apain edo aberatz diranak jantzi oi dituzten erakoa. Bai baña, ondo egiña, taju on eta ezertarakoa, (praktikoa).

4. Emakumak beren areto edo Batzokian elkarrekin batu ta beren eskuz egiña. Iñola ere ez bakoitzak bere etxean egiña edo eginda erosia.

5. Erri bakoitzak bidaldu lezake batzaldi ontara arreotxo bat edo geiago, mutiltxentzakoa naiz nexkarentzakoa.

6. Zein erritakoa dan, eta "Ume jantziki Batzaldirako" jarrita, Donostia' ra Santa Catalina, 5, era, Ilbeltza 31 baño len bidaldu bearko dira.

Sariak: 50 laurleko mutiltxoentzat egindako onenari. Beste 50 laurleko neskatxuarentzat egindako onenari.

Oarrak:

(a) Gipuzko E. A. B.' ren batzordeak epai-maikok autuko ditu, ta aben erabakien aurka ez du bestek eskubiderik izango.

(g) Sari epaia egiten dan bezin laister, erri guzitakoai, bakoitzari berea ostera itzuliko zaio, saritua naiz ez.

(k) Jentziki edo arreotxo abek, al du ten erietan, beren txiroai emateko asmotan egin bezaizkite; baña au ezin dutenak, berdin da al duten beste edozer asmo edo bidez egitea ere; au da, batzaldira aurkeztuta gero bakoitzak berak ornitu duan zatia bereganatzekotan edo. Au erri bakoitzak berak ikusiko du nola egin alko duan. Guk ez degu eskatzen Emakumak beren Batzokian elkarrekin batuta egitea besterik. Bai dakizute ba: batzaldira aurkeztutako arretxo guziak bakoitzari berea itzuliko zaio, onezaz nai duana egiteko; augatik, erri txiroeneko Emakumak eldu lezaizke gogoa izan ezkero gure batzaldi ontara. Au da nai degu-na.

Gabonak-Urretxun

Emakume Abertzale Batzakuan deyari ez diote danak entzun gor egiñ azkeneko orduari begira egon gabe zintzo erantzun dutenak badira, baña orain-dik asko dira erantzun lezatekenak. Gure eskerrik biyozkorrena, gure deyari aiñ zintzo erantzun diyotenari, ta zerbaît eman lezatekela eman gabe daudenari lenbailen eman dezatela eskatzen diyogu gure asmoak ondo atera ditezen, emaitzak, artzen dira Martin Zabaleta'nian, Uraiñ'enian, ta Batzokian.

Len eman dutenaren izenak emen azaltzen ditugu:

Elgarresta' tar Nekane, Argarate'ren Alarguna, Uraiñ' en Alarguna, Legorburu' tar Jon, Aleman bat (G. Rodolf) Agirre' tar Gergori, Mendiola' tar Julen, Zabaleta' ren sendiak, Berriotxoa sendiak, Rojo sendiak, Txintxurreta sendiak, Buska sendiak, Markulegi' tar Martiñe, Zubizarreta' tar Enkarnacion.

Batzordea

Eraskiñak:

1) Josketa lan abek elkarrekin egiten ari diranean, Emakumak euskera utzez mintzatzen alegindu bitez; egun bakoitzean ontan nork uts gutxien egiten duan kontu eramanaz. Erri bakoitzean ontan garaile danari, Aipamen Omengarria (Mención Honorífica) emango zaio. Ontarako, arretxoaz batera, bidalbezaigute garaile izan dan emakumearen izena, aintzat artu dezagun

2) Lan ontan ari diran bitartean, bein baño geiagotan arkituko dira Emakume taldeok, naita ere ez dutela arkitzen josketari ta lan ontako gaiai dagokien euskerazko itz egokirik; augatik bein baño geiagotan esan bearko dituzte per kala" "kruzadua" "pespuntea" ta aabr Onelako itzak esatea ez da uts egitetzat artu bear! baña baita beste Aipamen Omengarri bat emango diogu, euskeraz ez dauden eta josketan erabiltzea bearreko diran onelako itzik geien bidaltzen digun erriari. Au ere arreotxoaz batera bidalduko digute.

Ezeren ezpairik duan guziak esan bezaigu ta poz-pozik erantzungo diogu.

Batzordea

Butrongo Ostatua
ONDO TA MERKE JAN NAI BADEZU, ZUZENDU ETXE ONETARA
Elgoibar

Dr. TELLERIA
ESPECIALISTA
ESTOMAGO, INTESTINOS, HIGADO
RAYOS X
Consulta: 3 a 6. - Prim, 31, 1.º

Miguel Larre
ODONTOLOGO. MEDICO - DENTISTA
CHURRUCA, 14, 1.º